



Bergarako udalak deitutako proiektu / ideien lehiaketa 2013

Lehiatzailea: **ALKABIETA 0003**

|     |                                |   |
|-----|--------------------------------|---|
| 1   | DATU OROKORRAK:                | 2 |
| 1.1 | SUSTATZAILEA.                  | 2 |
| 1.2 | PROIEKTUA.                     | 2 |
| 1.3 | LEKUTZEA.                      | 2 |
| 2   | PROIEKTUAREN ZERGATIA, SARRERA | 2 |
| 3   | PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA      | 2 |
| 4   | PROIEKTU TEKNIKOA              | 2 |
| 5   | BALIABIDEAK                    | 2 |
| 6   | AURREKONTUA                    | 3 |
| 7   | LABURPENA GAZTELERAZ           | 4 |

## AURREPROIEKTUA

### 1 DATU OROKORRAK:

#### 1.1 SUSTATZAILEA.

BERGARAKO UDALA

#### 1.2 PROIEKTUA.

ALKABIETAN SEGURTASUNA hirigintza proiektua.

#### 1.3 LEKUTZEA.

Alkabieta kalea 3, Bergara, Gipuzkoa.

### 2 PROIEKTUAREN ZERGATIA, SARRERA

Bergarako Alkabieta kaleko segurtasuna bermatzeko proiektu bat da hau. Kale hau Santa Marina Elizan hasi eta hilerriraino doa. Lehenengo zatian, "Sierbak" eraikinera heldu arte oinezkoentzako da, beste aldean, kotxe eta oinezkoentzako, baina erdigunean, puntu estu bat dauka. Oinezkoak eta kotxeak 3m. pasa beharra daukate eta honek segurtasun falta sortzen du.

### 3 PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Segurtasuna bermatzeko, espaloi berriak egiten dira gaur egun espaloirik ez dagoen gunetan. Horretarako, "Manso" etxeari bere berdeguneke 20m<sup>2</sup> desjabetzen dira. Horrela Alkabieta kaleak eta E. Urdangarin kaleek 5m. zabalera izango dute luzeera guztian. 5m. hauek 2m. espaloi eta 3m. bideetan banatzen dira oinezkoen segurtasuna bermatuz.

### 4 PROIEKTU TEKNIKOA

Teknika aldetik erraza den proiektu bat da, gaur egungo asfaltoa moztu eta horren ordean espaloi bat egitean datza. Ez da inongo instalaziorik ukitzen.

Desjabetza gunean, gaur egungo baranda aprobetxatuaz ixten da lorategia. Bertan landareria berria landatu edo gaur egungoa birlandatu daiteke.

Gune berri honetan, asfalto berria bota beharko litzateke.

### 5 BALIABIDEAK

Lan hau Bergarako udaleko langileekin egiteko proposa da, duen aurrekontuarengatik eta zailtasun baxua eta makinaria gutxi behar delako.

Puntu kritikoak, desjabetza egin behar den zatia lortzeko jabeekin egin beharreko bilera eta akordua dira.